



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
2016/02/16

Elena Unzuetak abeltzaintzako laguntza plana barrikusi egingo dala iragarri dau, azken aldian Karrantzan izandako otsoen erasoen ostean

Elena Unzueta Iraunkortasuneko eta Ingurune Naturaleko diputatu andreak agerraldia egin dau gaur Bizkaiko Batzar Nagusietan, Podemos eta PP taldeek eskatuta, Karrantzan otsoak dauen presentziaren, espezie horrek inguruko abereei egindako erasoen, Aldundiak baimendu dituan otso-ehizaldien eta abereak galtzeagaitik abeltzainei emondako laguntzen ganeko azalpenak emoteko. Bere esku-hartzean, Aldundiko arduradunak, Aldundiak abeltzaintzako ustiapenei emoten deutseezan laguntzak “barriro aztertuko dirala” iragarri dau.

Holan, beharrian ari dira espezie horrek eragin dituan kalteak konpentsetako laguntzak eguneratzen. Laguntza horreen bitartez igaz, aurretik eskaria egin eben 10 abeltzaini lagundu jaken 2.199 euroguz. “Balorazino moduluak barriro aztertzen ari gara beharrian, eta kalte-ordainetan, orain arte kontuan hartu ez diran baina abeltzaintzako jardueran kalte ekonomiko garrantzitsuak eragiten dituen beste kontzeptu batzuen balorazinoa sartzeko modua ari gara begiratzen, abereak desagertzea edo abortuak, adibidez”, adierazo dau Elena Unzuetak.

Aldundiko arduradunak Iraunkortasuneko eta Ingurune Naturaleko batzordeari jakinarazo deutsoenez, Karrantzan izandako otsoen azkenengo erasoak izan ziran Aldundia otso-ehizaldi bi baimentzera eroan ebenak, urtarrilaren 22an eta 24an. Ehizaldi horreen helburua ez zan espezie hori lurraldetik “desagertuarazotea”, Foru Aldundiaren beharra “abeltzaintzako jardueraren eta espezie horren kontserbazinoaren arteko” orekea bilatzea dalako. “Ez dogu otsoa desagertuarazotea bilatu, eta ez da holangorik gertatu”, esan dau.

Azkenengo otso-ehizaldi bi horreetan –2015ean hiru egin ziran– 4 otso harrapau dira, eta Aldundiak badaki otsoa “badabilela oraindino Karrantzatik”, horren ostean “eraso gehiago” izan diralako. Unzuetak esan dauenez, otsoak Karrantzako biztanle guneetara hurbiltzen ari dira, eta hori dala eta, bertako biztanleak “bildurtuta dagoz”.

Unzuetak datu gehiago be emon ditu. 2014ko urtarriletik gaur egunera arte 35 abeltzaintza ustiapeneko “194” abelburuk jasan ditue zuzenean “egiaztautako otsoaren 80 erasoaldi”. “Gitxi gorabeherako” kalkulua eginez, 2015eko urtarriletik gaur egunera arte Karrantzako abeltzainek “21.000 eta 45.000 euro inguru arteko” galerak izan dituela esan dau diputatu andreak.

Aldundia beharrian ari da abeltzaintzaren eta otsoaren arteko “ahalik eta bizikidetzaren harmoniatsuen” lortzeko, beti be bioaniztasuna eta ingurune naturala bere esanahi zabalenean kontuan izanda. Unzuetak onartu dau “ez dituela ezagutzen” otsoa Bizkaian egotearen zergaitiak, beste gauza batzuen artean otsoak “mobikortasun geografiko handia” dauela kontuan izan behar dalako.

Unzuetak barriro azpimarratu dauenez, otso-ehizaldiak “orekea bilatzeko politikaren parte bat baino ez dira. Espezializautako enpresa bategaz ari gara beharrian laneko dinamika ezarteko eta otsoek eragindako heriotzak ziurtatzeko, eta beste erkidego batzuek be harremanak doguz,



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

estrategiak ikasteko”. “Esperientzia hori kontuan izanda, ikusten dogu ez dagoala orekea bermatzen dauen formula magikorik”. Otsoa babesten dauen legedia daukan Portugalen, espezie horrek “%20ko jatsierea izan dau”. Otso-ehizaldietan oinarritutako politikea dauen Galizian barriz, Bizkaian gertatu dan moduan, “otsoaren presentziak %20 egin dau gora”.

EH Bilduk “zoriondu” egin dau Aldundia, abeltzaintzaren sektoreari begiratzen deutson kudeaketea dala eta, baina gero bat etorri da batzarretako ganerako taldeakaz, gai hori “sentsiblea, konplexua eta anitza” dala esatean. “Arazoa jasaten daben sektoreakaz planak adostearen” alde agertu da, otsoa gizonagaz “batera bizi daiten”. “Orekea lortzea ez da erraza, baina Bizkaiko gizarteak ezin dau otsoaren biziraupena krisi larria jasaten ari dan abeltzaintza sektorearen esku”, adierazo dau Mikel Kormenzanak, eta abeltzainek, talde ekologistek, Administrazioak eta batzarretako taldeek osatutako “jarraipeneko mahaia” eratzea proponidu dau.

EAJ-PNV taldeak uste dauenez, otsoak Bizkaiaren dauen presentzia “gero eta handiagoa izango da”, eta neurriak “egokiak dirala” eta “ez dirala ardura barik hartu” azpimarratu dau. “Neurri horreek abeltzainen eta otsoaren biziraupenaren arteko orekea bilatzen dabe”. Sozialistakaz batera, jeltzaleek Mario Saenz de Buruaga aditua batzordera etortea eskatu dabe, gai horren ganeko bere ikuspuntua azaldu daian.

Arturo Aldecoak (PP), bere aldetik, esan dau Aldundiak “bape erraza ez dan orekea” bilatzen dauela abeltzainen eta ekologisten interesen artean. Karrantzan otsoen “aldian behingo” presentziak eragina izango dau abereengan, baina esan dauenez, “badagoz heriotza horreek eragiten dituen txakur basatiak be”. Hori dala eta, laguntzetan txakurren erasoak be kontuan hartzea eskatu dau.

Podemos Bizkaiak, bere aldetik, Bizkaiko lurraldean “ez dagoala” otsoaren arazoaren ganeko “soluzino integralik” esan dau.

ZUGATZEN MOZKETEA ABANTO ZIERBENAN

Podemos Bizkaia eta PP taldeei erantzunez, Elena Unzuetak jakinarazo dau zehapen espedienteak zabaldu jakola enpresa bati, Abanto Zierbenako baso guneeetan, “10. poligonoan”, hain zuzen be, kontrolik bako zugatzen mozketea egin dauelako.

Foru Administrazioak esan dauenez, enpresa horrek eragindako kalteak “5.643 metro karratutan justifikazino bako zugatz mozketak egitea, 1.178 metro pista baimen barik zabaltzea, eta baimen barik barrero zugatzak landatzeko 1,5 hektarea prestetea” izan dira. Baimen barik moztutako arbolen artean, erreken sortzapen gunetik kanpo baimen barik moztutako 143 oin, eta erreken eraginpeko guneeetan moztutako 592 oin dagoz, 2.191 urritzez gain”. Enpresak, “530 pinu eta 450 eukalipto” egozan gunean jarduteko baimena baino ez eukan.

Unzuetak adierazo dauenez, enpresak baimen bako inguru batean aritzeko “intenzionaltasuna” izan ebala emoten dau, eta jarduketa oso azkarra izan zanez, ezin izan zan hori saihestu, “egun gitxi batzuetan” gauzatu zalako. “Heltzeko gaitza dan eta gitxi ikusten dan troka gunean dagoan basoa da”. Unzuetak esan dauenez, enpresa horrek, ganera, “pistak be legea bete barik eta aurretik emon beharreko baimen barik” zabaldu ditu.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

EH Bilduren eretxiz, gertakari hori “Bizkaia pinuz eta eukaliptozen beteten dauden baso ereduaren ondorioa” da. David Lopategiren berbetan, eredu hori dala eta “familia askok euren basoak bertan behera izten ditue, eta basoak suntsitu eta pinua eta eukaliptoia landatzen daben enpresa piraten esku geratzen dira. Enpresa horri bardin deitso danak, badaukalako gura ebana. Isuna jarreak bardin deitso”, salatu dau.

PP taldeak, bere aldetik, eskaria egin dau enpresa hori arau hausleen “zerrenda berezian” sartu daiten. Eta Podemos Bizkaiak zalantzak agertu ditu mozketari hori “egun leian edo 2tan egin izanaren ganean. Elena Unzuetak eskaria egin dau, basozainaren txostenaren ganean zalantzarik agertu ez daiten, eta egiaztatu dauenez, enpresa horrek “ezin izango dau etorkizunean Aldundiarentzat egiten diran beharretan parte hartu”.

LANKIDETZEA KONPOSTAREN ARLOAN

Horrez gain, talde popularrak eskaria egin dau, Aldundiak, denpora gitxi barru Epeleko planta zabalduko dala kontuan izanda sortutako konpostari urtenbidea emoteko Gipuzkoagaz alkarlanean aritzearen ganeko informazioa emon daian. Gai horren inguruan, Unzuetak azaldu dauenez, Artigaseko Konpostegian izandako esperientziak “erakusten deusku ez dagola erabilgarritasunik Bizkaian egiten dan konposterako”, eta konpostaren inguruko esperientziak ezagutzeko Alemaniara bidaiak egin dirala adierazo dau.

Esperientzia horreek egiaztatu ostean, Unzuetak jakinarazo dau Aldundiak Bizkaiko konpostaren ganeko “jarduketa plana” egingo dauela aurrean, konpostaren kudeaketea benetako egoerara eta Bizkaiaren beharretara egokitzeke. Diputatuak Arabagaz eta Gipuzkoagaz koordinazino lanak egiteko konpromisoa erakutsi dau.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA
16/02/2016

Elena Unzueta anuncia una revisión del plan de ayudas a ganaderos tras los recientes ataques de lobos en Karrantza

La diputada foral de Sostenibilidad y Medio Natural, Elena Unzueta, ha comparecido hoy en las Juntas Generales de Bizkaia para ofrecer explicaciones, a petición de Podemos y PP, sobre la presencia del lobo en Karrantza, los últimos ataques de esta especie a ganado de la zona, las batidas autorizadas por la Diputación y las ayudas a ganaderos por la pérdida de reses. En su intervención, la responsable foral ha anunciado la "revisión" de las ayudas que ofrece la Diputación a explotaciones ganaderas.

Así, está trabajando en la actualización de las ayudas para compensar los daños provocados por esta especie, con las que el año pasado se indemnizó a 10 ganaderos que lo solicitaron previamente con 2.199 euros. "Estamos trabajando en la revisión de los módulos de valoración y estamos estudiando la manera de incluir en las indemnizaciones la valoración de otros conceptos no contemplados hasta ahora, pero que generan importantes pérdidas económicas en la actividad ganadera, como la desaparición de ganado o los abortos", ha indicado Elena Unzueta.

La responsable foral ha informado a la comisión de Sostenibilidad y Medio Natural que los últimos episodios de ataques de lobos ocurridos en Karrantza fueron los que impulsaron a la Diputación a permitir dos batidas, el 22 y el 24 de enero cuyo objetivo no era "exterminar" esta especie en el territorio, ya que el trabajo de la institución foral está centrado en buscar un equilibrio "entre la actividad ganadera y la conservación de esta especie". "No hemos pretendido el exterminio del lobo y esto no se ha producido", ha dicho.

En estas dos batidas –en 2015 fueron tres- se han capturado 4 ejemplares, y la Diputación tiene constancia de que el lobo "pasea por Karrantza" ya que, con posterioridad, ha habido "más ataques". Unzueta ha apuntado que los lobos se están acercando a núcleos poblacionales de Karrantza, lo que ha ocasionado que el vecindario se sienta "atemorizado" ha dicho.

Unzueta ha ofrecido más datos. Desde enero de 2014 y hasta la fecha de hoy, "194" cabezas de ganado de 35 explotaciones ganaderas se han visto afectadas directamente por los "80 ataques de lobo verificados". En un cálculo "aproximado", la diputada ha señalado que los ganaderos de Karrantza han tenido pérdidas "de entre 21.000 y 45.000 euros", desde enero de 2015 hasta hoy.

La Diputación trabaja para lograr una convivencia entre la actividad ganadera y el lobo "lo más armoniosa posible", teniendo siempre presente la biodiversidad y el medio natural en su sentido más amplio. Unzueta ha reconocido que "desconocen" las causas que motivan la presencia del lobo en Bizkaia, ya que, entre otros factores, hay que tener en cuenta que el lobo presenta una "gran movilidad" geográfica.

Unzueta ha insistido en que las batidas "son solo una parte de la política de equilibrio". "Contamos con una empresa especializada para establecer dinámicas de trabajo y que certifique las muertes por lobos y estamos en contacto con otras comunidades para aprender estrategias. De esta experiencia vemos que no hay una fórmula mágica que garantice un equilibrio". En



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Portugal, con una legislación que protege al lobo, esta especie “ha disminuido un 20%”. En cambio, en Galicia con una política de batidas, al igual que ocurre en Bizkaia, “se ha incrementado la presencia del lobo en un 20%”.

EH Bildu ha “felicitado” a la Diputación por la gestión de cara al sector ganadero, para después coincidir con el resto de grupos junteros en que este asunto es un tema “sensible, complicado y diverso”. Ha abogado por “acordar planes con los sectores afectados para que el lobo conviva” con el hombre. “El equilibrio es difícil pero la sociedad vizcaína no puede dejar la supervivencia del lobo en manos de un sector ganadero que está sufriendo una importante crisis”, ha sostenido Mikel Kormenzana, quien ha sugerido la creación de una “mesa de seguimiento” con presencia de ganaderos, grupos ecologistas, Administración y grupos junteros.

El PNV cree que la presencia del lobo en Bizkaia “irá en aumento” y ha destacado que las medidas son “acertadas” y “no se han adoptado al tuntún”. “Buscan un equilibrio entre ganaderos y la supervivencia del lobo”. Junto a los socialistas, los jeltzales han pedido la presencia en una próxima comisión del experto Mario Saenz de Buruaga para que exponga su punto de vista en relación a este asunto.

Por su parte, Arturo Aldecoa (PP) ha señalado que la Diputación tiene un “equilibrio difícil” entre los intereses de ganaderos y ecologistas. La presencia “ocasional” de lobos en Karrantza viene a tener una incidencia sobre el ganado, aunque ha advertido que “también hay perros asilvestrados que provocan estas muertes”, por eso, ha pedido que se incluyan en las ayudas los ataques de cánidos.

Por su parte, Podemos Bizkaia ha señalado que en el territorio vizcaíno “no existe una solución integral” en torno a la problemática del lobo.

TALA DE ÁRBOLES EN ABANTO Y ZIERBENA

En respuesta a Podemos Bizkaia y PP, Elena Unzueta ha informado de la apertura de un expediente sancionador a una empresa por una tala “incontrolada” en terrenos forestales de Abanto y Zierbena, concretamente en el “polígono 10”.

La Administración foral ha cuantificado los daños de esta empresa “en 5.643 metros cuadrados de talas injustificadas, 1178 metros de pistas abiertas sin autorización, y 1,5 hectáreas de preparación para repoblación sin autorización. El arbolado talado sin autorización incluye 143 pies cortados sin autorización fuera de la zona de servidumbre de los arroyos, y 592 pies cortados en las zonas de afección a los arroyos, además de 2.191 avellanos”. La empresa sólo tenía autorización para actuar en un terreno que incluía “530 pinos y 450 eucaliptos”.

Según los indicios, Unzueta ha señalado que hubo “intencionalidad” por parte de la empresa para actuar en una zona no autorizada y que la actuación fue tan rápida que no se pudo paralizar, porque se hizo “en pocos días”. “Es un monte situado en una zona de barranco de difícil acceso y con poca visibilidad”. Unzueta ha informado de que esta empresa ha abierto además “ilegalmente pistas sin permisos previos”.

Para EH Bildu este hecho es “consecuencia de un modelo forestal que llena Bizkaia de pinos y eucaliptos”. Este modelo “provoca –según David Lopategi- que familias enteras abandonen los



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

montes y los dejen en manos de empresas piratas que saquean montes para plantar pino y eucalipto. A esta empresa le da igual todo, porque ya tiene lo que quería. Le da igual la multa”, ha denunciado.

Por su parte, PP ha pedido que se incluya a esta empresa en una “lista especial” de infractores. Y Podemos Bizkaia ha dudado de que la tala se haya producido en “1 o 2 días”. Elena Unzueta ha pedido que no se dude del informe del guarda forestal y ha confirmado que la empresa “no podrá participar en el futuro en trabajos para la Diputación”.

COLABORACIÓN EN MATERIA DE COMPOSTAJE

Asimismo, los populares, a su vez, habían pedido que la Diputación informase de la posible colaboración con Gipuzkoa en materia de compostaje ante la próxima apertura de la planta de Epele. En este sentido, Unzueta ha explicado que la experiencia de Konpostegi en Artigas “nos demuestra que hay una utilidad del compost que se produce” en Bizkaia y ha informado de viajes a Alemania para conocer experiencias en materia de compostaje.

Tras constatar estas experiencias, Unzueta ha informado de que la Diputación elaborará este año un “plan de actuación” del compostaje en Bizkaia para ajustar, "a la situación real y a las necesidades de Bizkaia", la gestión del compost. La diputada se ha comprometido a coordinarse con Alava y Gipuzkoa